



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**2024KO MARTXOAREN 21EAN
EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Udalek izendaturiko ordezkariak

DORLETA ELKOROBARRUTIA PAGOAGA

LEHENDAKARIA

Ordezkariek

Udalak

**IZARO ELORZA ARREGI
IÑAKI OLALDE ALTZELAI
MARKEL AZKARGORTA CID
GARAZI ETXEBERRIA SAN MIGUEL
KEPA URTEAGA GARCIA
JASONE GIRALDO MENENDEZ
MAIDER MORRAS AZPIAZU
EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA
ARITZ IGELTZ LAZKANO
GARIKOITZ ITURBE ETXEBARRIA
ION ALBIZU GONZALEZ**

**OÑATI
OÑATI
BERGARA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
ESKORIATZA
ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARETXABALETA**

Etorri ez direnak:

- Ibon Unzetabarrenetxea Gallego
- Ainhoa Lete Zabaleta
- Gorka Artola Alberdi

Idazkaria: Leire Ucin Soraluze

Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan, 2024ko martxoaren 21ean eguadiako 12:30etan, Mankomunitatea osatzen duten udalek izendaturiko hamahiru **ordezkari** bildu dira

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Inork ez du ezer esateko aurreko aktari buruz, beraz onartutzat ematen da.





2.- Dekretuen berri ematea.

Inork ez du ezer komentatzeko Dekretuei buruz.

3.- Debagoieneko Mankomunitateko Berdintasun plana onartzea 2024-2027 epealdirako.

Puntua bozkatzan dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Iñaki Olalde, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Mainer Morras, Izaro Elorza, Dorleta Elkorobarrutia.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen dute Debagoieneko Mankomunitateko Berdintasun plana 2024-2027 Epealdirako.

4.- Mankomunitateko langileen soldata %0,5 igotzea onartzea, 2022ko abenduaren 31an indarrean zeudenak oinarritzat harturik, 2023ko urtarrilaren 1etik atzeraeraginezko efektuekin.

Idazkariaren txostena:

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19 Bi 2 b) artikulua honako hau xedatzen du:

“2. Halaber, hala badagokio, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, honako igoera hauek aplikatuko dira, 2023ko urtarrilaren 1etik atzeraeraginezko efektuekin, bi kasutan:

(...)

b) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izandako bilakaerari lotutako gehikuntza.

BPG nominalaren igoerak Gobernuak aurrekontuen lege hau egitearekin batera aurkeztutako koadro makroekonomikoan zenbatetsitakoa berdindu edo gaindituko balu, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko da.

Horretarako, Estatistikako Institutu Nazionalak 2023ko BPGren aurrerapen-datuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministroen Kontseiluaren erabaki baten bidez. Erabaki hori BOEn argitaratuko da”.

Agindu horretan xedatutakoaren arabera, 2024ko urtarrilak 30ean, Estatistikako Institutu Nazionalak Barne Produktu Gordin (BPG) nominalaren bilakaeraren 2023ko datua argitaratu zuen, lege horretako 19. Bi 2 b) artikuluan jasotakoa bete zelarik, hau da,

%0,5eko ordainsari-igoera osagarria izateko nahitaezko baldintza 2023ko urtarrilak 1eko efektuekin.





DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Era berean, eta Legeak berak bere artikuluetan jasotzen duen bezala, Ministroen Kontseiluak 2024ko otsailaren 6an egindako bilkuran gehikuntza osagarri hori aplikatzea erabaki zuen, eta erabaki hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Beraz, aurrekariak ikusirik eta EUDEL Elkartearen gomendioarekin bat eginez, ontzat ematen da Debagoieneko Mankomunitateko Langileen soldatetan %0,5eko igoera aplikatzea, 2022ko abenduaren 31ko ordainsariak oinarritzat hartuz, 2023ko urtarrilak 1etik atzeraeraginezko efektuekin.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Iñaki Olalde, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Dorleta Elkorobarrutia.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen dute Debagoieneko Mankomunitateko langileen soldata %0,5 igotzea, 2023ko urtarrilak 1etik, atzeraeraginezko efektuekin.

5.- Gasoleoa kontratatzekeo Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio zentraleko lizitaziora atxikitzea onartzea.

Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntak 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran Gipuzkoako

Foru Aldundiaren Kontratazio Zentralaren kontratazio zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen.

Ikusirik Gasoleoaren hornidurari dagokion kontratua Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bitartez izapidetu zela eta epemuga 2024ko urriak 13 dela.

Ikusirik Bulegoko paperaren hornidurari dagokion kontratua Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bidez izapidetu zela eta epemuga 2024ko uztailak 15 dela. Kontuan izanik 2024ko apirilak 4an bukatzen dela lizitazio hauetan atxikitzekeo epea Proposatzen zaio Gobernu Juntari:

LEHENA. Gasoleoaren hornidurari dagokion kontratua esleitzeko Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentraleko lizitaziora atxikitzea onartzea.

Puntua bozkatzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Iñaki Olalde, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Dorleta Elkorobarrutia.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0





Beraz, aho batez onartzen dute gai ordeneko 5. puntua.

6.- Bulego papera kontratatzekeo Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio zentralako lizitaziora atxikitzea onartzera.

Foru Aldundiaren Kontratazio Zentralaren kontratazio zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen.

Ikusirik Gaseloaren hornidurari dagokion kontratua Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bitartez izapidetu zela eta epemuga 2024ko urriak 13 dela.

Ikusirik Bulegoko paperaren hornidurari dagokion kontratua Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bidez izapidetu zela eta epemuga 2024ko uztailak 15 dela. Kontuan izanik 2024ko apirilak 4an bukatzen dela lizitazio hauetan atxikitzekeo epea Proposatzen zaio Gobernu Juntari:

LEHENA. Bulego papera kontratatzekeo Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio zentralako lizitaziora atxikitzea onartzea.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Iñaki Olalde, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Mainer Morras, Izaro Elorza, Dorleta Elkorobarrutia.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da bulego papera kontratatzekeo Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio zentralako lizitaziora atxikitzea.

7.- Ana Zendegei Zelaia ekintzaileari (Aholkularitza eta Psikoterapia zentroa), Arrasateko 7-ZM modulua uztea onartzea urte baterako.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Iñaki Olalde, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Mainer Morras, Izaro Elorza, Dorleta Elkorobarrutia.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0





DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

Beraz, aho batez onartzen dute Ana Zendegi Zelaia (Aholkularitza eta Psikoterapia zentroa), Arrasateko 7-ZM modulua uztea urte baterako.

8.- 2024ko Hazinnova programa garatzeko Debagoieneko Mankomunitatea eta Innobasque-n arteko hitzarmena onartzea.

2024ko Hazinnova programa garatzeko hitzarmen proposamena. (5.

Eranskina)

"Hazinnova Programa Lankidetzan Egikaritzeko" Innobasque eta Debagoieneko Mankomunitatearen arteko lankidetzaren azalpena egiten du zerbitzuko arduradunak. Eranskin hau (5. Eranskina) 2021ean sinatutako hitzarmenari lotzen zaio. Hitzarmen horren bitartez eskualdeko enpresa txiki (gutxienez 5 langile) eta ertainek aholkularitza zerbitzuak jaso ditzakete dohainik. Aholkularitza zerbitzuak aholkulari espezializatuak eta Innobasquek homologatuak emango dituzte, proiektu bakoitzeko, gutxi gorabehera 50 orduko aholkularitza jasotzeko zerbitzuak eskaintzen dira. Garapen Agentziak, enpresen artean programa zabaltzeaz gain bitartekari eta dinamizatzaile lanak burutu behar ditu, horrela parte hartu nahi duten enpresei tramitazioak erraztuz. Lan horiek egiteagatik Agentziak aldagarria den ekarpen ekonomiko bat jasotzen du.

Batzordekideek ondoko erabakia hartu dute:

"Hazinnova" programa lankidetzan egikaritzeko Innobasque eta Debagoieneko Mankomunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea (5. Eranskina) eta Gobernu Juntara bideratzea Garapen Agentziako Batzordearen onespenerekin.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Iñaki Olalde, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Dorleta Elkorobarrutia.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen dute gai ordeneko 8. puntua.

9.- Eroso Banaketak enpresako ekintzaileari jarritako fidantzetatik 60 euro atxikitzea onartzea, eta ondorioz 1.055,90 euro itzultzea.

GARAPEN EKONOMIKORAKO ESKUALDE AGENTZIAREN BATZORDEA

IRIZPEN TXOSTENA

Jokin Mujika Balzategi (Eroso banaketak) Arrasate 6-IM.

Urtarrilaren 8an izandako Garapen Agentziako Batzordearen bileran Jokin Mujika Balzategi (Eroso Banaketak) ekintzaileak aurkeztutako baja eskaera eta fidantzaren

Nafarroa Etorbidea, 17 – 20500 Arrasate (Gipuzkoa)





DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

itzulera aztertu zen. Batzordeak baja ontzat ematea erabaki zuen, baina fidantza itzulera ez gauzatzea proposatu zuen ekintzaileari emandako kanpo hesia irekitzeko zazpi (7) aginte automatikoetatik bakarra itzuli zuelako eta ez entregatutako aginte automatiko horien kostea kalkulatu behar zelako fidantzatik kenketa egin ahal izateko. Ekintzaileak, gerora, beste aginte automatiko bat entregatu zuen, beraz, galdutako aginte automatikoak bost izango liriteke guztira.

Zerbitzu arduradunak, bildutako informazioaren arabera, mando bakoitza 12,00 eurotan baloratzen du, beraz galdutako bost aginte automatikoen balioa guztira 60,00 eurotako izango litzateke.

Hori guztia kontuan hartuta, ondoko proposamena egiten du.

Jokin Mujika Balzategi (Eroso Banaketak) ekintzaileak jarritako fidantzatik (1.115,90€) 60,00€ atxikitzea eta fidantzaren gainontzeko kopurua, hau da, 1.055,90 euro itzultzea.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Iñaki Olalde, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Dorleta Elkorobarrutia.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen dute gai ordeneko 9. puntua.

10.- Epele zabortegia berriz ez irekitzea onartzea.

INGURUMEN BATZORDEKO IRIZPEN PROPOSAMENA

Epele zabortegia berriro ez irekitzeko proposamen teknikoa: berrirekitzeko obraren lizitazioa atzera botatzea, zabortegia berrirekitzeko EJ-k emandako diru-laguntza itzultzea eta zabortegia behin-betiko zigilatu eta ixteko izapideak hastea

Exp.zkia: 39/2024

IKUSIRIK

Epele zabortegiaren itxiera kanpo erabiltzaileentzat (2018.09.14):

2018.09.14an, Epele hondakin ez arriskutsuen zabortegia kanpo-erabiltzaileentzat itxi zen, bideragarritasun ekonomiko ezagatik. 2018.09.14tik 2019.03.26 arte, barne erabilerarako Debagoieneko garbiguneetan jasotako obra hondakinak soilik isuri ziren zabortegian. 2019.03.26az geroztik ez da hondakin gehiago jaso zabortegian.

Epeleko hondakin ez-arriskutsuen zabortegiak gelaxka berriaren 5 fase ustiatzeko baimena du bere Ingurumen Baimen Bateratuan (IBB-n). Gaur egun, lehen 2 faseak ustiatu eta beteta daude; eta beraz, baimendutako ustiapen planaren arabera, posible litzateke hurrengo 3 faseak ustiatzea, hau da, 3., 4. eta 5. faseak. Gelaxka bakoitzaren edukiera 148.061m³, 89.150m³ eta 87.519m³ da, hurrenez hurren; hau da, guztira 324.730 m³-ko edukiera ustiapen ahalmena.

Zabortegiaren balizko berriekiera: (1) Eusko Jaurilaritzak emandako diru laguntza, (2)





DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

egonkortasun geoteknikoaren azterketa eta (3) obra esleitzeko lizitazioa

1. Eusko Jaurlaritzak emandako diru laguntza

2021ean, Debagoieneko Mankomunitateko orduko arduradun politikoek Epele zabortegia berrirekitzeko pausuak ematen hasia erabaki zuten. Horretarako, zabortegian soilik Debagoieneko eskualdeko hondakinak jasotzetik, Euskal erkidego osora irekitzea adostu zuten Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailarekin.

Testuinguru horretan, 2 milioi euroko diru laguntza bat esleitu zion Eusko Jaurlaritzak Debagoieneko Mankomunitateari 2021.11.30en, Epele zabortegia berriz irekitzeko obra finantzatzeko helburuz.

2. Egonkortasun geoteknikoaren azterketa

Zabortegiaren balizko berriekieraren bideragarritasuna baloratu ahal izateko Mankomunitateak 2002 eta 2023. urteetan bi azterketa geotekniko egin zituen, horretarako lanak LURGINTZA INGENIERÍA GEOLÓGICA S.L. enpresari esleitu.

3. Obra esleitzeko lizitazioa

Azterketa geoteknikoen behin-betiko emaitzarik izan ez arren, 2022ko urrian Mankomunitateko Gobernu Juntak Epele zabortegia berrirekitzeko obra (2. zelda behin-behinean zigilatu eta 3. zelda egokitzekoa) exekutatzeko lizitazioa martxan jarri zuen. Epele zabortegiaren balizko berriekieraren gainean Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuaren txosten teknikoak (2024.02.08):

Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzu Teknikoaren 2024.02.08ko txosten teknikoak honela dio:

Epele hondakin ez arriskutsuen zabortegia berrirekitzearen inguruan, **Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuaren iritzi, zabortegiak ez ditu berriz irekitzeko baldintza teknikoak betetzen**, ondorengo arrazoiak direla eta:

- 2.1. Egonkortasun geoteknikoa
- 2.2. Lurrazpiko galeriaren egoera
- 2.3. Zelda zaharraren azpiko inpermeabilizazio eza
- 2.4. Lurrazpiko urak drainatzeko sistemaren efizientzia murrizketa
- 2.5. Balizko irekieraren eraginez, zabortegian mugimendu geotekniko esanguratsuak egonez gero, soluziobide konplexu eta garestiak
- 2.6. Zabortegia berriz irekitzeko bideragarritasun ekonomikoaren azterketa eza

Txostenak:

- Epele zabortegiaren balizko berriekieraren gainean Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuaren txosten teknikoak (2024.02.08).

- Epele zabortegia berrirekitzeko obra exekuzioaren lizitazioa atzera botatzeko idazkari-kontuhartzailearen txostena.

- Eusko Jaurlaritzak Mankomunitateari Epele zabortegia berrirekitzeko emandako diru laguntza itzultzeko idazkari-kontu hartzailearen txostena.

Ingurumen Batzordeak 2024.03.14ko ez-ohiko bilkuran adostutakoa:

2024.03.14ko ez-ohiko bilkuran Ingurumen Batzordeko batzordekide guztiek, gairerendako 5. puntuari, aho batez, Epele zabortegia ez berrirekitzea adostu dute.





DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Ingurumen Batzordeari bideratutako esleipen proposamenean zehaztutako 4 erabaki puntuez gain, ondorengoa ere gehitu beharko litzatekeela azaldu dute zerbitzuko teknikariek:

- Epele zabortegiko zelda berriko 2. fasearen zigilatze partziala eta 3. fasearen sorrera obraren baitan, abian jarritako geosintetikoaren kalitatearen kontrolerako kontratu-lizitazioa atzera botatzea.

Aipatu guztia ikusirik, ondorengoa

PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI

LEHENA.- Azaldutako arrazoi tekniko guztietan oinarrituz (ikusitako 2024.02.08ko txosten teknikoa), Epele berriz ez irekitzea.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Iñaki Olalde, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Dorleta Elkorobarrutia.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da Epeleko Zabortegia berriz ez irekitzea.

11.- Epele zabortegia berrirekitzeko abian jarritako obraren (2. zelda behin betiko zigilatu eta 3. zelda egokitzeakoa) lizitazioa atzera botatzea onartzea.

BIGARRENA.- Epele zabortegia berrirekitzeko abian jarritako obraren (2.zelda behin betiko zigilatu eta 3.zelda egokitzeakoa) lizitazioa atzera botatzea; eskaintzak aurkeztu zituzten enpresa lizitatuzaileei erabakiaren berri eman eta Euskadiko Kontratazio Plataforman erabakia argitaratuz.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Iñaki Olalde, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Dorleta Elkorobarrutia.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da gai ordeneko 11. puntua.

12.- Epele zabortegia berrirekitzeko obra dela eta, geosintetikoaren kontrolari dagokion lizitazioa atzera botatzea onartzea.





HIRUGARRENA.- Epele zabortegiko zelda berriko 2. fasearen zigilatze partziala eta 3. fasearen sorrera obraren baitan, abian jarritako geosintetikoaren kalitatearen kontrolerako kontratu-lizitazioa atzera botatzea.

Puntua bozkatzen dute:

Alde (13): Kepa Urteaga, Iñaki Olalde, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Dorleta Elkorobarrutia.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da gai ordeneko 12. puntua.

13.- Eusko Jaurlaritzak Mankomunitateari Epele zabortegia berrirekitzeko emandako dirulaguntza itzultzea onartzea, EJ-ko Garapen Ekonomiko, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailari erabakia jakinaraziz.

LAUGARRENA. Eusko Jaurlaritzak Mankomunitateari Epele zabortegia berrirekitzeko emandako dirulaguntza itzultzea, EJ-ko Garapen Ekonomiko, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailari erabakia jakinaraziz.

Puntua bozkatzen dute:

Alde (13): Kepa Urteaga, Iñaki Olalde, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Dorleta Elkorobarrutia.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da Eusko Jaurlaritzak Mankomunitateari Epele zabortegia berrirekitzeko emandako dirulaguntza itzultzea, EJ-ko Garapen Ekonomiko Iraunkortasun eta Ingurumen Sailari erabakia jakinaraziz.

14.-Epele zabortegia behin-betiko zigilatu eta ixteko izapideak martxan jartzea. Horretarako:

- zabortegia zigilatu eta behin betiko ixteko obra proiektua idatzi eta obra zuzendaritza esleitzeko lizitazioa martxan jartzea.
- ondoren, obra exekuzioa esleitzeko lizitazioa gauzatzea.
- eta azkenik, zabortegia zigilatu eta ixteko obra exekutatzea.

BOSGARRENA.- Epele zabortegia behin-betiko zigilatu eta ixteko izapideak martxan jartzea.

Horretarako:

- (a) zabortegia zigilatu eta behin-betiko ixteko obra proiektua idatzi eta obra zuzendaritza esleitzeko lizitazioa abian jartzea;
- (b) ondoren, obra exekuzioa esleitzeko lizitazioa gauzatzea;





(c) eta azkenik, zabortegia zigilatu eta ixteko obra exekututzea.

Puntua bozkutzen dute,

Alde (13): Kepa Urteaga, Iñaki Olalde, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Dorleta Elkorobarrutia.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aho batez onartzen da gai ordeneko 14. puntua.

15. Ur-Laginketa eta laborategiko analisien zerbitzu kontratua dela eta, (Epele zabortegiko lixibiatu, lurrazaleko ur eta lurpeko urak; eta Bergarako garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa urak), Teknimap S.L. enpresari esleitzea onartzea.

INGURUMEN BATZORDEKO IRIZPEN PROPOSAMENA

Ur-laginketa eta laborategiko analisien zerbitzu-kontratua (Epele zabortegiko lixibiatu, lurrazaleko ur eta lurpeko urak; eta Bergarako garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa urak). Esleipen proposamena

Exp.zkia: 210/2023

IKUSIRIK

Kontratuaren xedea: Ur-laginketa eta laborategiko analisien zerbitzu-kontratua (Epele zabortegiko lixibiatu, lurrazaleko ur eta lurpeko urak; eta Bergarako garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa urak).

Unitate sustatzailea: Ingurumen Zerbitzua.

Kontratu mota: Zerbitzu kontratua.

Esleipena egiteko bidea eta modua: Prozedura irekia eta ohiko tramitazioa.

Baldintza orriak: Baldintza Agiri Administrazioak eta Teknikoak.

Araudi aplikagarria:

1. Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea eta urriaren 12ko

1098/2001 Erregelamendua.

2. Administrazio baldintza zehatzen orriak.

“A” gutun-azalaren irekiera:

2024.02.19an kontratazio mahaik irekitako “A” gutun-azalaren aktak honela dio:





DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Honako enpresa hauek aurkeztu dituzte proposamenak:

- LABS & TECHNOLOGICAL SERVICES AGQ SOCIEDAD LIMITADA
- URIKER, S.L.
- TEKNIMAP ENERGIA Y MEDIO AMBIENTE, S.L.
- SGS TECNOS, S.A.

Egiaztatzen da enpresa guztiak aurkeztu dituztela A artxiboan aurkeztu beharreko dokumentuak ea guztiak balidoak direla.

“B” gutun-azalaren irekiera:

2024.02.28an kontratazio mahaiak irekitako “B” gutun-azalaren aktak amaieran honela dio:

Txostenak:

- “A” gutun-azalaren irekiera – kontratazio mahaiaren akta.
- “B” gutun-azalaren irekiera – kontratazio mahaiaren akta.
- Idazkari-kontu hartzailearen txostena.

Kontratua esleitzeko eskuduntza:

Indarrean dagoen Debagoieneko Mankomunitateko Aurrekontu Exekuzio Arauaren 15.artikuluko

3.atalaren arabera, kontratu hau esleitzeko eskuduntza Mankomunitateko Gobernu Juntarena da.

Ingurumen Batzordeak 2024.03.14ko ez-ohiko bilkuran adostutakoa:

2024.03.14ko ez-ohiko bilkuran Ingurumen Batzordeko batzordekide guztiek, gai-zerrendako

2.puntuan, aho batez, ur-laginketa eta laborategiko analisisien zerbitzu-kontratua (Epele zabortegiko

lixibiatu, lurrazaleko ur eta lurpeko urak; eta Bergarako garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa

urak) TEKNIMAP ENERGÍA Y MEDIO AMBIENTE S.L. enpresari esleitzea adostu dute.

Aipatu guztia ikusirik, ondorengo





DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

PUNTUAZIOA GUZTIRA

	Balorazio teknikoa	Eskaintza ekonomikoa	Guztira
AGQ	26,00	48,19	74,19
SGS	23,50	54,93	78,43
TEKNIMAP	30,00	70,00	100,00
URIKER	26,00	64,54	90,54

Emaitzak ikusirik, puntuazio altuena TEKNIMAP enpresak lortu du.

Hori horrela, proposatzen da TEKNIMAP ENERGIA Y MEDIO AMBIENTE enpresari kontratua behin-behinekoz esleitzea. Kontratua behin betikoz esleitzeko 10 eguneko epea eskainiko zaio jakinarazpena bidaltzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, beharrezko dokumentazioa eta egiaztagiriak aurkezteko.

PROPOSATZEN PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI

Ur-analitikak eta laginketak egiteko kontratua TEKNIMAP S.L. enpresari esleitzea: Ur-laginketa eta laborategiko analisien zerbitzu-kontratua (Epele zaborteigiko lixibiatu, lurrazaleko ur eta lurpeko urak; eta Bergarako garbiguneko eta San Balerio garajeko isurketa urak) TEKNIMAP ENERGÍA Y MEDIO AMBIENTE S.L. enpresari esleitzea. Esleipen proposamen hau behin-behinekoa izango da, kontratua behin-betikoz esleitzeko esleipendun enpresak aurkeztu beharreko dokumentazio eta ziurtagiriak ontzat eman bitartean, idazkari-kontu hartzailearen txostenak zehaztutakoaren arabera.

Puntua bozkatzen dute eta hemen emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Iñaki Olalde, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Dorleta Elkorobarrutia.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aho batez onartzen da gai ordeneko 15. puntua.

16. Garbiguneetako kamioi zerbitzua ordezkoko langileek egiten dutenean ordutegi trinkoan egin daitekeen baloratzeko froga bat abian jartzea onartzea.

INGURUMEN BATZORDEKO IRIZPEN PROPOSAMENA

Garbiguneko kamioiaren froga, ordezkapen egunetan zerbitzuaren ordutegia trinkoa izan daitekeen baloratzeko

Exp.zkia: 41/2024

IKUSIRIK

Garbiguneetako kamioi zerbitzua:

Garbiguneetako kamioi zerbitzuak erabiltzaileentzat zabalik dauden Arrasate, Bergara eta Oñatiko garbiguneetako eta barne-erabilerarako Epeleko garbiguneko hondakinen





DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

garraio eta deskarga lanak egiten ditu. Garbiguneen ordutegia eta garbiguneetako kamioiaren ordutegia:

Garbiguneetako kamioi zerbitzua garbiguneei zuzendutako zerbitzu bat denez, erabiltzaileei irekitako garbiguneek duten ia ordutegi bera du garbiguneetako kamioi zerbitzu honek. Arrasate, Bergara eta Oñatikoko garbiguneen ordutegia goiz eta arratsaldekoa da, astelehenetik larunbatera (astelehenetik ostiralera 9:00-13:30 eta 15:00-19:00 eta larunbatetan 9:00-13:30tara). Garbiguneko kamioiaren zerbitzuaren ordutegia astelehenetik ostiralera 9:00-13:00 eta 15:00-18:00k artekoa da.

Garbiguneetako kamioi zerbitzua eskaintzen duten langileak eta antolakuntza: Garbiguneko kamioi zerbitzua 5 langileen artean banatzen da, bakoitzak astebeteko lan-txandak eginez. Langile hauek euren egutegia antolatua dute lan-txanda hauek kontuan izanik.

Zerbitzu horren langile titularrak ezingo balu zerbitzua egin (bajaz dagoelako edo justifikatuta dagoen beste arrazoi bategatik), atzetik datorren langileak ordezkatu behar izaten du; hau ere bajaz egongo balitz edo ezingo balu zerbitzua egin (betiere justifikatutako arrazoiengatik), hurrengora pasatzen da lan-txanda. Dena den, zerbitzu hau egiten duen langiletakoren batek astebete baino gehiagoko baja hartuz gero, Mankomunitateak ahal den neurrian kanpoko ordezko bat topatzen du.

Ordezkapen motzetarako "komodin" sistema honetan, garbiguneko kamioi zerbitzua goiz eta

arratsaldeko ordutegian eskaintzen da, baina ordezkapena egitea dagokion langileari gutxienez egun bateko aurrerapenez jakinarazten zaio goiz eta arratsaldeko ordutegian lan egitea egokituko zaiola.

Garbiguneetako kamioi zerbitzuko langileen eskaera:

"Komodin" bidezko ordezkapen aste hauetan gerta daitezkeen ordutegi aldaketek 5 langile hauengan eragozpen eta kontziliazio arazoak sortzen ditu. Horregatik, langile hauek behin baino gehiagotan eskatu dute ordezkapen hauek egiten direnean, garbiguneetako kamioi zerbitzuaren ordutegia ohiko goiz eta arratsaldekoa izan beharrean ordutegi trinkoa izatea (8:00-15:00); ordutegi hau baita langile hauek urteko gainontzeko asteetan (garbiguneko kamioi zerbitzua ez dutenean) egin behar izaten dutena.

Garbiguneetako kamioi zerbitzua ordutegi trinkoan egiteak sor ditzakeen arazoak: Aitzitik, Ingurumeneko Zerbitzu teknikoak eta garbiguneetako langileek balizko ordutegi aldaketa hau errezeloz ikusten dute, garbiguneetan sor daitezkeen logistika arazoak direla eta. Garbiguneetako kamioi zerbitzua amaitu ondoren (garbiguneak irekita jarraitzen duten denboran), hondakin gehiago jaso eta edukiontzia betetzeko arriskua ekar lezake garbiguneetako kamioi zerbitzuaren ordutegi aldaketak (hondakinak edukiontzietatik kanpo, gainkargatutako edukiontzia, gehiegizko pisuagatik legez kanpoko garraioak, etab.).

Txostenak:

- Garbiguneko kamioiaren froga. Ingurumeneko zerbitzu-txostena.

Ingurumen Batzordeak 2024.03.14ko ez-ohiko bilkuran adostutakoa:

2024.03.14ko ez-ohiko bilkuran Ingurumen Batzordeko batzordekide guztiek, gai-zerrendako

4.puntuari, aho batez, Garbiguneetako kamioi zerbitzua ordezko langileek egiten dutenean (euren ohiko egutegitik kanpo), zerbitzu hau ordutegi trinkoan (8:00-15:00k artean) egitea posible den aztertzeko froga bat abian jartzea adostu dute.

Aipatu guztia ikusirik, ondorengo

PROPOSATZEN ZAIO MANKOMUNITATEKO GOBERNU JUNTARI





DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Garbiguneetako kamioi zerbitzua ordezeko langileek egiten dutenean ordutegi trinkoan egin

daitekeen baloratzeko froga bat abian jartzea:

Garbiguneetako kamioi zerbitzua ordezeko langileek egiten dutenean (euren ohiko egutegitik kanpo), zerbitzu hau ordutegi trinkoan (8:00-15:00k artean) egitea posible den aztertzeke froga bat abian jartzea.

Froga honek urtebeteko iraupena izango luke, baina edozein momentutan etetea posible litzateke, garbiguneetako kamioi zerbitzuaren ordutegi aldaketak garbiguneetako funtzionamendua kaltetu duela ikusiz gero.

Ingurumen Zerbitzuko txostenean zehaztutako adierazleak erabiliko lirateke frogaren emaitzak

baloratu eta horren arabera, garbiguneetako kamioi zerbitzua ordezeko langileek egiten dutenean ordutegi trinkoan egin daitekeen baloratzeko. Hauek dira frogaren emaitzak baloratzeko erabiliko liratekeen adierazleak:

- Garbiguneetako edukiontziek gainezka egitea.
- Garbiguneetako kamioia legez onartutako gehienezko pisutik gora ibiltzea errepidean.
- Hondakinen bidaiak karga gutxiegiarekin ateratzea garbigunetik.
- Garbiguneetako edukiontzia mugatik gora kargatzea (gainezka egitera iritsi gabe).
- Epeleko garbigunetik egin beharreko garraioak modu egokian egitea bermatzea.
- Modalitate bien (bi ordutegien) alderaketa, egindako garraio-bidaia kopuruaren eta garraiatutako tonen artean.

Puntua bozkatzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Iñaki Olalde, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Garikoitz Iturbe, Ion Albizu, Mainer Morras, Izaro Elorza, Dorleta Elkorobarrutia.

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da gai ordeneko 16. puntua.

17. Galdera eskaerak.

Ez dago.

Bilera bukatutzat ematen da 13:30etan, eta akta honetan jasotzen dira bertan hartutako erabakiak, dagozkion efektuetarako.

Arrasaten, 2024ko martxoaren 21ean

Lehendakaria

Idazkari-kontuhartzailea

